

## **KOSTUEN EGITURA**

Gure negozioa aurrera ateratzeko bere baitan dakartzan kostu guztiak kostuen egitura deritzogu.

Negozio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako funtziona dezakete; beste batzuek, berriz, duten kalitate-maila handiagatik. Gure kasuan, kalitate handiko produktu bat izango da.

Gure enpresaren kostuen egiturak honelako ezaugarriak izango ditu:

### **Kostu Finkoak:**

Berdin mantentzen diren kostuak dira. Adibidez, gure lantegiko alokairua finkoa izango da, gehiago zein gutxiago ekoiztu beti berdina ordaindu beharko dugu. Hasieran, lauron artean alokatutako lokal batean egingo dugu lan. Langileen soldata ere, kostu finkoa izango litzake. Behin gure enpresan aritzen diren langileei soldata ezarri, hori izango da haien soldata, nahiz eta gure enpresa gehiago edo gutxiago saldu. Produktuak egiteko beharko diren makinen mantenua ere kostu finkoen beste adibide bat da.



**Kostu Aldakorrak:** Kasu honetan, gure kostu aldakorrak materialak izango dira, Hainbat material eskeiniko ditugu, eta gure kostuen arabera azkenengo prezioa aldatuko da.

**Eskala ekonomia:** Gure produktuak merkatuan onarpen ona edukitzen badu eta salmentak altuak izango balira, gure produkzioaren jarraituko genuke eta demanda handitu ezker, gure produkzioa handituko genuke. Gure produktua berriiz, merkatuan ez balu onarpena edukiko, prezioa murriztu egingo genuke gure bezeroen atentzioa deitzeko, eta bezero berriak lortzeko

